

HAZINNOVA

ZURE ETEAK
HOBETZEKO BEHAR
DUEN LAGUNTZA

HAZZIN

NOVA

LAGUN

DIZU

N

Hazinnovak berrikuntza-
proiektuak modu praktiko,
azkar eta errazean gauzatzen
laguntzen dizkie ETEei.



INDUKO

HONAKO HAU NAHI BADUZU

- * Zure enpresaren ERRENTAGARRITASUNA hobetu.
- * Prozesuen EFIZIENTZIA hobetu.
- * GASTUAK eta entrega-EPEAK murriztu.
- * Enpresako pertsonak MOTIBATU.
- * MERKATUKO KUOTAK igo.
- * Bezero-SEGMENTU BERRIAK aztertu.
- * Zure JABETZA INDUSTRIALA babestu.
- * Produktu edo zerbitzu berriak DISEINATU.
- * BEHARRIZAN TEKNOLOGIKOAK zehaztu.

HONAKO HAU ESKAINIKO DIZUGU

- * 50 orduko aholkularitza espezializatua eta doakoa, 3 hilabeteko epean emaitzak lortzeko
- * Laguntza pertsonalizatua, prozesu osoan zehar
- * Gutxieneko administrazio-karga



GUK LAGUNDUKO DIZUGU

Zure enpresak 5 langile edo gehiago baditu eskabidea
aurkezteko unean, Euskadin badago eta honako sektore
hauetako batekoa bada:

INDUSTRIA:

- * Manufaktura-industria
- * Erauzketa-industriak
- * Energia-hornidurak
- * Uren eta hondakinen kudeaketa

ZERBITZUAK:

- * Industriari lotutako zerbitzuak
- * IKTak
- * Telekomunikazioak
- * Handizkako merkataritza
- * Garraioa
- * Biltegiaratze-lana
- * Finantza-jarduerak
- * Aseguruak
- * Edizioa
- * Arkitektura
- * Publizitatea

GUK LAGUNDUKO OHARRA*

* Parte hartzen duten enpresek bete beharreko baldintza
izango da 2019., 2020. edo 2021. urtean Innobideak eta/
edo Hazitek programen onuraduna ez izatea, Innobideak-
Kudeabide Contraste eta/edo Innobideak-Kudeabideren
2. fasearen onuradun baino izan ez direnean salbu.

OSO ERRAZA DA HAZINNOVAREN ONURADUN IZATEA

1. AGENTEA - Identifikatu zure Hazinnova agentea. Esteka honetan aurkituko duzun inprimakia betez egin dezakezu:

<https://www.spri.eus/laguntzak/hazinnova/>

2. BEHARRIZANA - Zure beharrianak identifikatu eta zehaztu zure agentearekin.

3. DEFINIZIOA - Definitu berrikuntzarako mikroproiektua zure agentearekin eta esleitu zaizun aholkularitza-zerbitzuarekin.

4. EZARPENA - Abiarazi zure mikroproiektua.

5. EMAITZAK - Gauzatu zure proiektua 3 hilabetetan.

50 orduko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskainiko dizugu doan. Zure agenteak eskainiko dizu, proiektuaren fase guztietan.



HAZINNOVARENTZAT
PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPE
BUKAERA:

2022KO ABENDUAREN 1A

GEHIAGO JAKIN NAHI?

**Hazinnovak honako esparru hauetan
ematen dizu laguntza**

*ETEEK esparru desberdinetako 2 mikroproiektu egin
ahalko dituzte gehienez ere.*

01. EKONOMIKO-FINANTZARIOA

**Nola hobe dezakezu enpresaren kudeaketa
ekonomiko-finantzarioa eta nola kontrola
dezakezu haren errentagarritasuna?**

- * Adierazleak aztertu / aginte-koadro bat sortu, erabakiak hartzeko prozesua arrazionalizatzeko informazioa lortzeko.
- * Kostuen kontrola eta enpresaren errentagarritasuna hobetu.
- * Marjinen jarraipena egin, produktuaren, zerbitzuaren eta merkatuaren arabera.
- * Enpresaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetu.
- * Plangintza egin: etorkizunerako planek euroetan duten eragina aztertu eta oreka ekonomiko-finantzarioa aztertu askotariko egoeretan.
- * Kostuak eta tarifak kalkulatzeko irizpideak berrikusi.
- * Aurrekontuak eta salmenta-prezioak kalkulatzeko tresnak baliatu.
- * Diruzaintza-arloko kudeaketa egin: likidezia, kaudimena eta zorraren birfinantzaketa.
- * Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa estrategikoa nabarmen hobe ditzaketen aukera teknologiko berrien beharrianari eta bideragarritasunari buruzko azterlanak egin.

02. EKOIZPENA

**Nola optimiza ditzakezu prozesuak ETErako
produktibitatea, kalitatea, jasagarritasuna eta
segurtasuna lortzeko?**

- * Enpresaren ekoizpen prozesua hobetu (layout).
- * 5S metodologia ezarri.
- * Plantako ekoizpenaren plangintza hobetu.
- * Lean manufacturing arloko pilotu bat ezarri.
- * TPM sistema ezarri.
- * Enpresaren ekoizpen-kostuak aztertu eta berrikusi.
- * Enpresaren produktibitatea hobetu.
- * Ekoizpen-prozesuak eta bere kudeaketa hobe ditzaketen aukera teknologiko berrien beharrianari eta bideragarritasunari buruzko azterlanak egin.
- * Ekoizpenerako behar den energiaren kostua eta ingurumenean duen eragina nabarmen murrizteko hobekuntzak ezarri (ekoekoizpena).
- * Aukerak identifikatu eta produktuen birmanufaktura testatu.



03. LOGISTIKA

Nola hobe dezakezu hornidura- edo banaketa-sarea, gastuak eta entrega-epeak murrizteko edo bezeroentzako zerbitzua hobetzeko?

- * Eskaera kudeatu. Eskaeraren ezaugarriak zehaztu eta salmenten aurreikuspenaz ohartarazteko eta hura kudeatzeko sistema bat zehaztu. ERPan ezarri (*) edo tresna ofimatikoak garatu.
- * Inbentarioak egin eta kudeatu. Inbentarioa murriztu, zerbitzu-maila eta stock falta hobetu eta jabetza- eta logistika-gastuak murriztu. ERPan ezarri (*) edo tresna ofimatikoak garatu.
- * Biltegia kudeatu. Produktibitatea eta biltegiaren fidagarritasuna hobetu, gorabeherak kudeatu, biltegiaren layout-a eta prozesuak berriro diseinatu, inbentarioa etengabe egin eta biltegi-ratze- eta manutentzio-elementuetarako aholkularitza eman. ERPan ezarri (*).
- * Banaketaz eta garraioaz arduratu. Egungo logistikaz bestelako aukerak landu, banaketaren kostu logistikoa aztertu eta hobetu, 3-4 PL azpikontratatu.
- * Kostu logistikoak eta marjinan duten eragina neurtu, hobetzeko ekintza-plana eginez.
- * Erosketak kudeatu. Erosketa-prozesua, negoziazioa eta erosketen ABC adierazleak birdiseinatu. ERPan ezarri (*) edo tresna ofimatikoak garatu.



04. BARNE-ADMINISTRAZIOA

Nola birdiseinatzen ditugu administrazio-prozesuak enpresen efizientzia hobetzeko?

- * Enpresa barruko administrazio-prozesuak berrikusi eta hobetu.
- * Proiektuak eta lana kudeatzeko eredu berriak ezarri.
- * Barne-kudeaketa automatizatu eta nabarmen hobe dezaketen aukera teknologiko berrien beharrianari eta bideragarritasunari buruzko azterlanak egin.
- * Barne-komunikazioa aztertu, lan-prozesuak azkarragoak izan daitezzen.
- * Prozesuak hobetu, ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko aukera teknologikoen bidez.

(*) Parte hartzen duen enpresaren ERP edo informazio-sisteman lan-prozedura berriak martxan jartzea eta/edo sistema hori hobetzeko proposamenak egitea, baita biltegia, eskaria, plangintza, hornidura eta kostu logistikoak kudeatzeko aukera teknologikoetarako (gaztelaniazko SGA, SCM eta ABC, hurrenez hurren) aholkularitza ematea ere.

05. PERTSONAK

Nola areagotu ditzakegu pertsonen konpromisoa eta motibazioa kudeaketaren bitartez?

- * Enpresako langileen motibazioa eta inplikazioa areagotu.
- * Langileen arteko lan-giroa hobetu.
- * Taldeko langileen arteko komunikazioa hobetu.
- * Lanpostu bakoitzaren eginkizunak eta ardurak zehaztu.
- * Lanpostuak baloratu.
- * Ordainketa-sistemak berrikusi.
- * Prestakuntza-ibilbideak eta karrera-planak zehaztu.
- * Laneko giroari buruzko inkestak egin.

06. BEZEROAK

Nola areagotu dezakegu merkatuko kuota ezagutzaren bidez eta bezeroak erakarri, artatuz edo fidelizatuz?

- * Bezero berriak identifikatu eta erakarri.
- * Bezeroen segmentazioa egin.
- * Bezero-zorria dibertsifikatu.
- * Enpresa hazteko eta zabaltzeko mekanismoak eta estrategia garatzen laguntzekoak identifikatu.
- * Barne-mailan merkataritza-estrategia zehaztu.
- * Enpresaren marketin- eta salmenta-estrategia zehazteko laguntza eman.
- * Produktuak hobeto merkaturatu.
- * Promozio-bide berriak eta bezeroenganaino heltzeko bide berriak identifikatu.
- * Markaren posizionamendua hobetu.
- * Bezeroak fidelizatu.





08. PRODUKTUA

Nola gauza ditzakegu produktuaren arloko irtenbideak, negozio-bolumena areagotzeko xedez?

07. MERKATU BERRIAK

Nola sar gaitezke merkatu edo sektore berrietan eta nola zuzen dezakegu enpresaren marketina geografia- edo bezero-segmentu horietarantz?

- * Merkatuaren prospekzioa egin, sektore- eta/ edo lurralde-dibertsifikaziorako estrategia garatzeko.
- * Merkatu-ikerketak egin, produktu edo zerbitzu berrietarako edo jada existitzen direnetarako. Balizko merkatuak lehenetsi.
- * Merkatu berrietan negozioa garatu eta produktu/zerbitzu berriak merkaturatzeko planak egin.
- * Marketineko estrategiak itxuratu edo egokitu, merkatu berrietan sartzeko.
- * Bezeroarekin/kontsumitzailearekin hitz egin produktuak merkaturatzen duen onarpenaren inguruan eta onarpen hori nola hobe daitekeen ikusi.
- * Marketin online estrategia bat eta salmenta digitala garatu, eta e-commerce izenekoa bultzatu.
- * Merkatu berrietan aukera berrien eskaria aztertu eta jarrera berdearen bidez merkatu horietan sartu.

Enpresaren produktuak eta zerbitzuak nabarmen hobetu

- * Produktuen eta zerbitzuen zorroa aztertu, aukerak identifikatzeko.
- * Produktua aztertu eta nola hobe daitekeen ikusi, langileekin batera.
- * Beharrian teknologikoak zehaztu, produktuak hobetzeko.

Produktu eta zerbitzu berriak diseinatu

- * Merkatuaren analisia egin (lehia, bezeroen beharrianak, legeria, jasagarritasuna eta abar).
- * Balizko produktu berriak sortu eta kontzeptualizatu.
- * Produktuetarako ideiak edo prototipoak baliozkotu eta bezeroekin frogatu.
- * Produktu berriak garatzeko beharrian teknologikoak zehaztu.
- * Ondasunen salmentatik zerbitzuen eskaintzara pasatzeko balizko trantsizioak aztertu eta zehaztu (zerbitziazioa).

Jabetza intelektualak kudeatu

- * Patenteak, marka komertzialak eta diseinu industrialak kudeatzeko aholkularitza eskaini, egindako inbertsioak nazioartean errentagarri egiteko (EPO eta PCT patenteak, marka komertzialak eta diseinu industrial europarrak).

INFORMAZIO GEHIAGO

